**Maixa Lizarribar**

MUSIKARIA

# "Espero ez genituen gauza on asko gertatu zaizkigu Amak taldea sortu dugunetik"

24.01.2022 | 10:33

astigarraga– "Gurpila berriz dabil bueltaka", ondorioztatu du Maixa Lizarribarrek (Altzo, 1971). Izan ere, 90eko hamarkadan Maixa ta Ixiar taldearekin Euskal Herriko plazak dantzan jarri ondoren, arrakasta ezustean etorri zaio berriro Amak musika laukotearen

Lo último Lo más visto

1. Covi gana a pedradas
2. Un niño de 9 años muere atropellado en Gran Canaria
3. Los familiares del Villa de Pitanxo no notan "ayuda ni amparo"
4. ´Total War: Warhammer III´ y ´Mass Effect´, entre las novedades de Game Pass
5. El tuit de Ayuso de hace unos años sobre el PP del que se mofan las redes
6. Intentan rescatar a un niño de cinco años atrapado en un pozo en

eskutik. Trikitixaren munduan eskarmentu handia duten lau emakumek osatzen dute Amak: Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano. Kasualitateak elkartu omen zituen, 2018ko Oñatiko Trikitixa Jaialdian elkarrekin jotzeko aukera izan zutenean. Geroztik, emanaldiak, kolaborazioak eta izen bereko lehen diskoa, Amak, etorri dira, besteak beste. Baita XXIX. Sagardo Berriaren Egunaren protagonista izateko gonbidapena ere.



Afganistán

7. Las obras del Hospital del Bidasoa desatan la preocupación de vecinos y sanitarios de la comarca
8. Los mosquitos aprenden a evitar los pesticidas tras una única exposición
9. Los 5 aceites con más propiedades para mejorar nuestra salud
10. ¿Cómo son los seguros de los barcos pesqueros?

Maixa Lizarribar. Argazkia: Arri Studioa

Retos y desafíos del sector de la sidra



**Pozik hartu zenuten Astigarragako txotx bolada irekitzeko proposamena?**

Sorpresa eta ilusio handiz hartu dugu. Egia esan, proposamena jaso genuenean sinistu ezinik geunden. Egun handia da sagardozale guztion-tzat eta gainera, gure etxean oso sagardozaleak izanik, urtero gertutik jarraitzen dugun festa da. Ohore handia izan da.

- MÁS INFORMACIÓN SOBRE EL SECTOR DE LA SIDRA

**Sagardotegira joateko asmoa duzue?**




Hipoteca fija ó variable

¿Sabes si te conviene una hipoteca fija ó variable?

Patrocinado por Ibercaja


Pandemiak dena hankaz gora jarri du, baina pandemiak jo baino lehen, gure etxean sagardotegira maiz joateko ohitura genuen. Iñauterien bueltan ekiten diogu sagardotegi

garaiari, eta ia astero joaten gara. Hori bai, sagardotegira astean zehar joaten garen horietakoak gara, jende gutxiago biltzen denean.

**Amak musika taldeko kide zara. Nola sortu zen Amak?**

Bakoitzak bere ibilbidea izan du musikaren munduan. Elkar ezagutzen genuen, baina aspaldian ez genuen batak bestearen berri. 2018. urtean, Oñatiko Trikitixa Jaialdiaren 10. urteurrena ospatu zen eta gutako bakoitzak bertan parte har-tzeko gonbidapena jaso genuen. 10. urteurrena izanik, zerbait berezia egin nahi zuten antola-tzaileek eta batera jotzeko proposamena egin ziguten, Hiru pieza prestatu genituen eta oso ondo sentitu ginen. Hustu egin ginen. Hain gustura aritu ginen, emanaldi eta eskaera gehiago etorri zirena. Amak bezala eskaini genuen lehen emanaldia Oiartzunen izan zen, 2019. urtearen amaieran. Hor hasi zen gure abentura, eta hortik aurrera espero ez genituen gauza on asko gertatu zaizkigu. Proiektu berri pilo bat etorri dira: emanaldiak, kolaborazioak... Gurpila berriz dabil bueltaka.



Configura tu i20 Híbrido

Ya sabes cómo quieres tu i20 Híbrido. Configúralo y ponlo a tu gusto

Patrocinado por Hyundai

**Eskarmentu handiko musikariak zarete denak, baina, orain arte, bikoteka aritu zarete. Ondo moldatzen zarete laukotean?**

Bikote bezala aritu gara, ni Ixiarrekin, Alaitzen kasuan Maiderrekin, eta Kris Amaiarekin, baina bikotea izateaz gainera, banda bat genuen atzean, eta orain laurok gure banda propioa osatu dugu. Ezberdina da.

2021. urtean 'Amak' izen bereko diskoa etorri zen. Nolakoa da?

Kariño askorekin osatutako lana da. Denbora gutxian prestatu genuen. 2020ko martxoan, etxera bidali gintuztenean, udaberrirako antolatuta genituen emanaldi guztiak bertan behera geratu zitzaizkigun. Urrian hasi ginen kon-tzertuak egiten eta hor ere kantuak sortzen hasi ginen. Diskoa 2021eko otsailean grabatu genuen, beraz, prozesua oso azkarra izan zen, baina aldi berean ilusio eta gogo handiko momentua izan zen.

Xabi Solanoren etxean grabatu duzue diskoa. Nolakoa izan da esperientzia?

Sekula sentitu ez naizen bezala sentitu nin-tzen, nahiz eta denbora gutxi izan, prozesua oso erosoa izan zen. Etxean bezala sentitu ginen. Dena erraza zen, kantuen grabaketa, argazkiak, eta abar. Zalantza gehiegi izan gabe gauzak ondo ateratzen ziren.

Nola aurreikusten duzue 2022. urtea?

Udazkenean kontzertu bakarra suspenditu zaigu, Esne Beltzarekin genuena, eta otsailera begira kontzertu hori aurrera ateratzeko asmoa dugu. Martxoan ere kontzertu gehiago etorriko dira.

## Más información

- Seguridad y disfrute protagonizarán esta nueva temporada.
- Hasi da Astigarragako txotx denboraldi berria.
- Gogoz ekin diote euskal sagardogileek denboraldiari, "merezi dugulako" lelopean.

**Temas relacionados:** Idioma Euskera | Musika | Sagardotegiak 2022

TE RECOMENDAMOS



**Deducciones para vivienda**

Estas son las deducciones en la vivienda por comunidades autónomas



**Escándalo en Bitcoin**

Cada días surgen más millonarios de menos de 30 años



**Cámbiate a Movistar Fusión**

Toda la Champions y Europa League gratis hasta final de temporada



**La dieta de los perezosos**

Pierde 23 kg en 1 mes haciendo a diario una simple cosa



¡Ayúdanos!



crossover + vendidos en España



2022: Nuevo KIA Sportage

El SUV con el que disfrutarás de una libertad absoluta ¡Descúbrelo!



i20 Híbrido. Configúralo

Configura tu i20 Híbrido y dale ese toque personal que tú sabes



¿Cuánto vale tu coche?

Descúbrelo fácilmente en sólo 30 segundos



Cambia tu seguro de COCHE

Comprueba en 20 segundos cuánto puedes ahorrar con Allianz Direct





Ahorra en tu seguro de coche

Cámbiate a Mutua y calcula cuánto puedes ahorrar

Ahora lo puedes tener todo

Toyota C-HR. Diseño único, deportividad e innovación



Único y 100% eléctrico

Nuevo Hyundai IONIQ 5. Configúralo a tu medida



Hay mantas que salvan vidas

Miles de niños se enfrentan al duro invierno sin nada para abrigarse



Hyundai TUCSON

Configura tu TUCSON con la última tecnología en seguridad y conectividad



El crossover más radical

Descubre el Kia XCEED. Estrena coche nuevo desde...

DISCOVER WITH addoor



Otras webs de Grupo Noticias

Deia | Diario de Noticias | Diario Noticias de Álava | Onda Vasca Noticias Taldea Multimedia (NTM)

© Noticias de Gipuzkoa - Edición Digital | Avda. Tolosa, 23 - 20018 - Donostia | Tel. 943 319 200

Aviso legal | Condiciones de uso | Mapa web | Contacto | Cookies | Política de Privacidad